

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Laburpena, Amurrioko Udalaren tokiko gobernu batzarrak irailaren 27an hartutako Erabakia-rena, zeinaren bidez dirulaguntza deialdia egin baita 2017an seme-alabak izan edo adoptatu dituztenentzat**

BDNS (identifikatzailea): 417386

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>:

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

2017an jaio eta/edo adoptatu den haurraren aita edo ama (familia unitatea osatzen duten aita edo ama), baldin eta haurra jaio edo adoptatu den unean familia unitatea Amurriion erroldatuta bazegoen eta baldintza hori betetzen jarraitu bada eskaera aurkezteko unera arte.

#### **Bigarrena. Xedea**

Deialdi honen xedea da 2017ko jaiotza eta/edo adopzio berrien babes soziala zabaldu eta osatzea, jaiotzak sustatzeko.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Amurrioko Udalaren osoko bilkurak 2018ko ekainaren 4an onartu zituen, eta ondoren haien testu osoa 2018ko uztailaren 27ko ALHAOn, 86. zenbakian, argitaratu zen.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdia 10.000,00 eurekin dago hornituta.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Hogeita hamar egun natural, laburpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amurrio, 2018ko urriaren 1a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**